

# Egunerokotasuna liburu bihurtu du Oñederrak

IDADLE DONOSTIARRAK 'INTEMPERIES (BABES BILA)' IZENBURU BERRIA AURKEZTU DU EREIN ARGITALETXEAREN ESKUTIK

Lourdes Oñederra idazlea  
atzo. FOTO: RUBEN PLAZA

MAIALEN EZQUERRO  
DONOSTIA

**E**TA emakumeari sugeak esan zion nobela argitaratu zuenetik 14 urte pasa direnean, Lourdes Oñederra (Donostia, 1958) idazlea literaturara itzuli da berriro *Intemperies (babes bila)* nobela besapean duela. Izenburu berriaren aurkezpenarekin Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteak urteroko zikloari hasiera eman dio, izan ere, Liburu Eguna ospatuko da datorren astelehenean eta idazlan berrien aurkezpenerako topagune bihurtzen da apirilko zita hau, Euskal Herriko hiriburu nagusiek liburuari lekua egiten diotela.

Oñederraren *Intemperies (babes bila)* eleberria eguneroko bizitzaren arrastotik mugitzen da; bertan ez dira gauza harrigarriak gertatzen, gauza txikiak eta ñabardurazkoak baizik, adierazi zuen atzoko aurkezpen-ekitaldian Iñaki Aldekoak, Erein argitaletxeako editoreak. “Nobela honetan azaltzen diren pertsonaiak unibertso intimoa islatzen dute”, zehaztu zuen editore eta ikerlari den Aldekoak.

“Besterik gabeko eguneroko

bizitza kontatzen da, ezer berezirik gertatzen ez denean ere, horrek berak duen erronka baita niretzat garrantzitsua”, azpimarratu zuen idazleak berak. Gehienon bizitza normalean ez dira nobeletan eta filmeetan ematen diren gertakari “handi, tragiko edo heroiko horiek” pasatzen, baina bakoitzari gertatzen zaizkion gauza txikiak “inportanteak” dira, Oñederraren ustez. “Bizitza zaila” dela ere esan zuen idazleak, eta hori ere islatu nahi izan du bere liburuan. “Zaila da

**“Bizitza zaila da ez dakigulako ezer geure buruaz eta ez besteez ere”**

LOURDES OÑEDERRA  
Idazlea

ezer ez dakigulako geure buruaz eta besteez ere ez. Hitzez baliatzen gara komunikatzeko eta bata besteari ulertzeko, baina askotan ez dakigu zehazki zertarako nahi ditugun hitz horiek, zeren bila ari garen hitzen artean edo zer esan nahi dugun”.

Askotan, zioen atzo sortzaile gipuzkoarrak, “hitzek lagundu egiten digute baina beste batzuetan, berriz, korapilatzen”.

**PERTSONAIA BELDURTIAK** Bere eleberriko pertsonaia nagusia Luzia da,

50 urteko hizkuntzalari donostiarra. Bere inguruan mugitzen den istorioan Eva izeneko pertsonaia afasiko bat dago, traumatismo edo shock baten ondorioz min-tzaira edota hizkuntza idatzia galdu duena.

Pertsonaiek ahal duten modura aurrera egiten dute, oraina antolatuz iraganaren zama gainean dute, etorkizunari nola begiratu ez dakitela. Idazlearen aburuz, “agian elkarren beharrea daude, eta elkarren beldurrez ere bai ziurrenik, ausartu ezinik baina nahirik” era berean. Idazlearen esanetan, babes falta horretan “maitasun falta dago ere, edo zaintzearen nahia”.

Aurkezpenean aurreratu zuen modura, amodiozko istorio bat ere badago tartean, baina Oñederrak misterio hori irakurle bakoitzaren eskuetan utzi nahi du, gauzak gehiegi aurreratu barik.

Izenburuari dagokionez, Oñederrak azaldu zuen “egoskorkeriagatik” jarri ziola orain daramana: “Oso ondo zetorkidan izenburu hori. Latineko *Intemperies* jarri nion babes eza esan nahi duelako”. Aldekoaren iradokizunari kasu eginez, berriz, euskarazko azpitolua erantsi zitzaion (*babes bila*).

Zorioneko itzulera, Oñederrarena, ziur aski bere irakurleek eskertuko dutena.

## La semana previa al Día del Libro

LAS EDITORIALES PRESENTAN NUEVAS PUBLICACIONES ANTES DE LA TRADICIONAL CITA DEL PRÓXIMO MARTES

DONOSTIA. El tradicional Día del Libro en la Plaza de Gipuzkoa de Donostia, organizada por el Gremio de Libreros de Gipuzkoa, tendrá lugar el día 23 de abril, cuando librerías, editoriales y distribuido-

ras instalarán stands en los que ofrecerán una variada oferta cultural al público.

Esta semana previa a la celebración se van a presentar diversos libros. Hoy será el turno de *Rasputin eta San Petersbugoko gauak*, de Joxemari Iturralde. Por otro lado, mañana habrá dos presentaciones: *Versus*, de Karlos Linazasoro, y *Annable*, de Josu Zabaleta. El jueves Jokin de Pedro presentará su libro *Etsai gordea*, y el mis-

mo día, John Andueza dará a conocer su libro *Kankaleko misterioa*.

El viernes no habrá presentaciones de libros ya que el Gremio de Libreros ofrecerá una rueda de prensa en la que explicará detalladamente cómo se desarrollará la jornada del martes. El día 22, sin embargo, Usoa Arin presentará *Baratze bat nahi dizut egin...* con el que se cerrará el ciclo de presentaciones de libros. >M.E.